



HAUSNARTU, EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

>>>

2

EUSKARA BIRPENTSATU BEHARRA, EKARPEN BATZUK ANTROPOLOGIATIK

Jone Miren Hernández

Gizate antropologiako irakaslea. UPV-EHU

Filosofia eta Hezkuntza Fakultatea

Helbide elektronikoa: jm.hernandez@ehu.es

1. ANTROPOLOGIAREN ESANAHIAZ NOLA BEGIRATU HIZKUNTZA ANTROPOLOGIATIK?

Antropologiaren ikuspuntutik hizkuntza kulturaren parte bat da zentzu aktibo batean: hizkuntza kultura egiteko eta eraikitzeke tresna bezala irudikatzen du. Ikuspegi horretatik antropologoek bi modutan aztertu izan dituzte herri ezberdinetako hizkuntzak. Batetik, antolaketa sozial zabal baten pieza, iker edota adierazle gisa; bestetik, gizakiok gure errealitatean eragiteko dugun bitarteko eta estrategia bezala. Antropologiak beraz, erakusle eta eragile gisa aurkezten digu hizkuntza, ikerkuntzarako atea zabal zabalik utziz.

Antropologiaren ikuspegitik gizarte guztiak dira interesgarriak eta denak bihurtu daitezke bere ikerketa objektu. Are gehiago, bere kasuan kultur eta gizarte ezberdinen arteko konparazioa helburu eta ikerketarako estrategia da, alderatze horrek giza izaera edota gizarte ezberdinetako ezaugarriak hobeto ulertzeko bidea ematen digunaren ustea aldarrikatzen du eta. Konparaketa egitearen aldeko jarrera horrekin bat eginez, dibertsitatearen ideia dugu antropologiaren funtsa. Gizakiak bere inguruneari egokitzeke ahaleginak egin behar ditu eta horren ondorioz ingu-

rune bezain anitzak eta aberatsak dira pertsonak nahiz egokitze prozesu horretatik sortutako kulturak.

Kultura gizakiak eta giza taldeek duten berezko zerbait da. Kulturak, besteak beste, usadioak, ohiturak eta urteetan bildutako ezagupena jasotzen ditu bere baitan. Kulturari esker gizarte edo giza talde baten partaide bilakatzen gara, bertan egokitzeko eta txertatzeko elementuak ematen dizkigu eta. Gizakiak kultura horren jabe egiten gara gizarte horretan parte hartuz eta, era berean, kultura hori bera bizirauten laguntzen dugu bere usadio, ohitura eta ezagupena barneratu eta birproduzitu egiten dugunean. Prozesu honetan ikaskuntza eta transmisioa ezinbesteko tresnak dira eta edozein kulturaren etorkizuna aspektu hauetan datza, eta ez ordea, oinordetza biologikoan.

Ikerketa esparru zabal honetan hizkuntza kezka garrantzitsua izan da beti. Antropologo askok gaur egungo hizkuntzak ikertzen dituzte, nagusiki, iragandako hizkuntzen ezaugarriak deskubritzeko asmoz; baina askotan hizkuntz antropologoek eta gizarte antropologoek elkarrekin egin izan dute lana hizkuntza eta kulturaren arteko harremanei loturiko beste elementu asko aztertu nahian. Hori dela eta, hizkuntzaren gaineko ikuspegia zabaldu egin da eta hizkuntza bera ezinbesteko tresna bihurtu da kultura eta gizarte ulertzeko eta deskribatzeko garaian.

Esandakoak esanda, eta euskararen egoeraren azterketari begira, bereziki interesatzen zait Alessandro Durantik hizkuntz antropologiaren inguruan landutako ikuspegia. Egile honen ustez, hizkuntz antropologiaren barruan egungo galdera nagusia haxe litzateke:

“¿En que contribuye el estudio de la lengua a la comprensión de un fenómeno social/cultural particular (por ejemplo, a la formación de identidad, a la globalización, al nacionalismo)? La formulación de este tipo de preguntas concibe la lengua no ya como objeto primario de indagación sino como instrumento para acceder a los complejos procesos sociales”.¹

Ildo horretatik, Durantik berak proposatzen du hizkuntz formak bigarren maila batean uztea eta bai gizarte formazioek (hierarkia, prestigioa, e.a.), bai prozesu sozialek (hizkuntz komunitatea, hiztunaren konfigurazioa) protagonismoa irabazten joatea. Hedatze prozesu honetan, kokatzen da hain zuzen ere nire interesa, bertan ikusten baitut antropologiaren potentzialtasuna euskararen errealitatearen azterketari heltzeko garaian.

2. HIZKUNTZ ANTROPOLOGIAREN EKARPENA: HIZKUNTZA, HIZTUNA ETA HIZKUNTZ KOMUNITATEA

Ondoren mahai gainean jarri nahi ditudan planteamenduak zerikusi zuzena dute hizkuntz komunitatearen nozioarekin. Zergatik jarri arreta hizkuntz komunitatearen kontzeptuan? Horren atzean hipotesi bat dago: hizkuntz komunitatearen inguruan hausnartzeak itxuraz ematen duena

Antropologo askok gaur egungo hizkuntzak ikertzen dituzte, nagusiki, iragandako hizkuntzen ezaugarriak deskubritzeko asmoz; baina askotan hizkuntz antropologoek eta gizarte antropologoek elkarrekin egin izan dute lana hizkuntza eta kulturaren arteko harremanei loturiko beste elementu asko aztertu nahian.

**Hiru ikerlerro nagusi
proposatuko nituzke.
Lehenengo aspektuak
hizkuntzaren
ideologiarekin du lotura.
Bertan hizkuntza bera
baino hizkuntzaren
inguruan sortutako
irudiak, diskurtsoak,
narratibak, e.a., aztertzea
litzateke helburua.
Bigarren ikerlerroak
hiztunaren nozioarekin
eta zehazki, horren
identitatearekin du lotura
zuzena. Azkenik, hizkuntz
komunitatearen nozioan
sakondu nahiko nuke.**

baino erronka garrantzitsuagoa dakar. Horren seinale dugu Iñaki Martínez de Lunak *Argia* aldizkarian idatzitako artikulua,² non XXI. mendean euskarak duen papera berraztertze gongibetea egiten digun. Horretarako, hizkuntz komunitatearen esanahiaren inguruko eztabaida aldarrikatzen du. Kasu honetan ere hizkuntz komunitatea izango dugu hizpide. Eta horrekin batera berari zuzenean loturiko elementuak aztergai bilakatu dira, beti ere hizkuntz antropologiaren ikuspegi berezia aplikatzeko intentziaz.

Euskararen egoera ezagututa eta hizkuntz antropologiak duen potentzialtasuna ikusita, nik aurrera begira hiru ikerlerro nagusi proposatuko nituzke. Lehenengo aspektuak hizkuntzaren ideologiarekin du lotura. Bertan hizkuntza bera baino hizkuntzaren inguruan sortutako irudiak, diskurtsoak, narratibak, e.a., aztertzea litzateke helburua. Bigarren ikerlerroak hiztunaren nozioarekin eta zehazki, horren identitatearekin du lotura zuzena. Azkenik, hizkuntz komunitatearen nozioan sakondu nahiko nuke. Horretarako bi kontzeptu ezberdinen arteko konparazioa egitea proposatzen dut. Alde batetik, euskal soziolinguistikan nagusitu den “hizkuntz komunitatearen” ideia dugu; bestaldetik, azken urte hauetan hizkuntz antropologia anglosaxoian erabiltzen ari den praktika komunitatea (*community of practice*) kontzeptua nabarmendu nahi dut. Biak parez pare jarriko ditut eta bigarren horren aldeko apustua egiteko arrazoiak azalduko ditut. Artikulu honen azken atalean praktika komunitate horren adibide zehatz bat landuko dut.

2.1 Hizkuntza eta prozesu semiotikoak (hizkuntzaren ideologia): *iconicity, recursivity, erasure.*

Hizkuntzari loturiko prozesu semiotikoaz edota hizkuntzaren ideologiak hitz egiten dugunean oihartzaren gara hizkuntzak, bere dimentsio praktikotik az gain, baduela gaitasuna bere gainean diskurtsoak eta irudiak sortzeko eta zabaltzeko. Kasu honetan interesatzen zaiguna ez da hainbeste hizkuntza batean esaten dena, baizik hizkuntza horri buruz esaten dena eta horrek hiztunengan duen eragina. Judith Irvinek eta Susan Galek prozesu hauen azterketan sakondu dute eta horren ondorioz hiru kontzeptu nagusi plazaratu dituzte: *iconicity, recursivity* eta *erasure*.

2.1.1 Iconicity (Ikonzazioa)

Prozesu honen bitartez hizkuntza eta bere irudi edo errepresentazio sozialaren arteko harreman zuzena gauzatzen da. Gauzak horrela, hizkuntza –edo hizkuntzaren aspektu bat– talde baten ikono moduan ager daiteke, talde horren izaera edota esentzia islatuz. Neurri batean, hizkuntza taldea bera ordezkatzeko balioko luke bien arteko lotura erabatekoa baita. Horren adibide argia gure artean, behin eta berriro errepikatzen

den galdera litzateke: euskalduntzat jotzeko edo *vasco* izateko euskara jakin behar da? Batzuen ustez Euskal Herria eta bere hizkuntza, euskara, bat dira, banaezinak. Euskara da euskaldunak egiten gaituena eta euskara da Euskal Herriko identitatea sostengatzen duena. Baina horren gainean sentsibiltate ezberdinak daude eta beste askorentzako harremana ez da zergatik hain estua izan behar. Euskal kultura eta euskal identitatearen inguruan osatutako ikerketak hori ondorioztatzen dute, alegia, euskal identitatea definitzeko modu ezberdinak daudela.

Azken hamarkadetan euskararen presentziak zabalkunde garrantzitsua bizi izan du eta esparru berrietara iritsi da. Horren eraginez pentsa dezakegu hizkuntzarekiko esperientziak aldatzen joan direla, harreman berriak sortuz. Adibide moduan euskaldun berriaren figura erabili dezakegu izan ere hau azken urteotan asko zabaldu den profil berria baitugu. Zein nolako hizkuntz identitatea sortu da hizkuntzarekin garatutako harreman berri honetatik?

Galdera bera egin dezakegu gazteen kasuan. Gaur egun gazteen artean ematen den euskararen ezagutza maila azken hamarkadetan lortu den altuena dela esan dezakegu, baina horietako gazte bakoitzak, zein harreman du hizkuntzarekin? Zein paper du hizkuntzak bere gazte izaerara? Masiboki euskara jasotzen ari diren gazte horien artean irudikatu dezakegun aniztasuna izugarria da, bai familiaren jatorriari dagokionez, bai bizitokiari eta inguruneari dagokionez, bai bizimodu eta ohiturei dagokionez, bai bizitza aurreikuspenei dagokionez.

Halere, berez euskal gizartean azken hamarkadetan eman diren aldaketaz gain, kontuan hartu behar dira globalizazioak mundu osoan martxan jarritako prozesuak eta horien eragina hizkuntz minorizatueta.³ Orain arte euskal gizartean kategoria dikotomikoak erabili izan dira nagusiki pertsonak (hiztunak) nahiz taldeak (hizkuntz komunitateak) definitzeko eta sailkatzeko: hau da, kultura euskalduna *versus* kultura espainola edo kultura euskalduna *versus* kultura frantsesa. Baina hemen-dik aurrera, posible izango al da logika hori mantentzea? Gure inguruko gizarteetan kultur eta hizkuntz aniztasuna inoiz baino nabarmenagoa denean,⁴ posible da modu dikotomiko horretan pentsatzen jarraitzea?

2.1.2 Recursivity (Errekurtsibitatea)

Iconicity delako prozesuaren ildotik hizkuntza eta identitatearen arteko zubia irudikatzen dela esan dezakegu. Hortik aurrera *recursivity* deitutako prozesuaren bitartez harreman horretatik sortutako errepresentazioan hizkuntzaren inguruan sortutako gatazkak eta oposizioak zer nolako eragina duten planteatzea dugu helburu. Irvinek eta Galek proposatzen duten kontzeptuak abiapuntu bat du: hizkuntzan oinarritutako identitate hori sendotzeko beste identitate baten aurka agertu behar da. Hau da, identitatea mugatzea berezko elementuak zehaztea dakar eta horretarako

euskararen presentziak zabalkunde garrantzitsua bizi izan du eta esparru berrietara iritsi da. Euskaldun berriaren figura erabili dezakegu izan ere hau azken urteotan asko zabaldu den profil berria baitugu. Zein nolako hizkuntz identitatea sortu da hizkuntzarekin garatutako harreman berri honetatik?

**Orain arte euskal
gizartean kategoria
dikotomikoak erabili izan
dira nagusiki pertsonak
(hiztunak) nahiz taldeak
(hizkuntz komunitateak)
definitzeko eta
sailkatzeko: hau da,
kultura euskalduna
versus kultura espainola
edo kultura euskalduna
versus kultura frantsesa.
Baina hemendik aurrera,
posible izango al da
logika hori mantentzea?
Gure inguruko gizarteetan
kultur eta hizkuntz
aniztasuna inoiz baino
nabarmenagoa denean,
posible da modu
dikotomiko horretan
pentsatzen jarraitzea?**

hainbat osagai kanpoan gelditu behar dira.

Euskararen kasuan argi ikusiko dugu hizkuntzaren esparruan euskararen definizioa gaztelera edota frantsesa bezalako hizkuntza boteretsuen aurka gauzatu behar izan dela. Egoera minorizatu batetik abiatuta bere burua defendatzeko beharra ikusi du eta horretarako bere posizioa babestearen alde egin du, beti ere, beste hizkuntzak alde batera utziz.

Gauzak horrela, bere izaeraren erreferentzia kanpoan dagoenez, hizkuntzaren eremuan eta hiztunen artean egon daitezkeen ezberdintasunak eta berezitasunak alboratu egiten dira. Identitate bakar eta irmo baten alde egiten da, eta berezko talde horretan (hizkuntz komunitate bezala izendatzen dena) sortzen diren ñabardurak, disidentziak, e.a., ikusezin bilakatzen dira. Halere, badira, ikuspegi honen aurrean, beste proposamen bat dakarren eredia. Kasu honetan heteroglossia nozioan oinarritutako proposamena litzateke.

Heteroglossia kontzeptuak Mikhail Bakhtin errusiar hizkuntzalari eta filosofoaren obrara eramaten gaitu. Egile hori homogeneousitasun linguistikoaren kritikatik abiatzen da, konstrukzio ideologikoa deritzan neurrian:

“(…) vinculada históricamente al desarrollo de los Estados europeos y a los esfuerzos por establecer una identidad nacional por medio de una lengua nacional que recibe un único nombre: alemán, francés, ruso, italiano”.

Hizkuntza bakar —bateratu— baten ideia horri kontrajarriz, Bakhtinek iradokitzen du pertsona oro, benetan, boz anitzez eratua dagoela eta bozak estratifikatuak direla. Azken finean eta Joan Pujolarrek (Pujolar, 2001:128) markatzen duenez hizkuntza erabiltzeko eta maneiatzeko modua lotuta egongo da tokiko hitz egiteko moduagatik edota hiztunari dagokion talde sozial, profesional edota belaunaldiagatik.

Hizkuntza heteroglosikoaren eta boz diferente horien jatorrian, hainbat faktore sozio-ekonomiko eta kultural egongo lirateke, tentsio jarraituan konjugatuak.

Orain arte azaldutakoa ingurune hurbilean kokatzen baldin badugu, hiztunen jardura aztertzen dugunean ondorengo alderdian erreparratu behar dugula konturatuko gara: hiztunek euskaraz edo erdaraz egiten dutenean genero, klase soziala edota bestelako identitate ezaugarriak adierazten ari direla. Kontuan hartu beharko genuke, printzipioz ez dagoela “euskalduna” (edo “erdalduna”) soilik izateko aukerarik, hau da pertsona orok boz ezberdinak jasotzeko aukera izaten du, gatazka egotzeran bizi daitezkeen bozak izanda ere. Ikuspuntu horrek lan ildo aberatsa ekar dezake euskal soziolinguistikan, izan ere euskaltasunarekin batera elkarbizitzen diren bestelako identitateak (generoa, klase soziala, aukera sexual ezberdinei lotutakoa, ea.) oso gutxitan bihurtu baitira ikergai.

Gure artean ere elementu anitzeko identitateak eredu bilakatu dira egun, alde batetik gizartea bera gero eta konplexuago egin delako; bestal-

detik, gizabanakoa bera, bere interesak, nahiak eta bizipenak zabaldu egin direlako. Hizkuntz ukipena, kultur ukipena eta pertsonen arteko harremanak (errealak nahiz birtualak) egungo gizarte garatuen ezaugarriak dira, eta horren ondorioak jada iritsi dira Euskal Herrira. Urteetan espazio eta denbora finko bati lotuta bizi izan gara (gure mugak, gure historia) baina egun, bi kategoría hauek guztiz apurtu dira.⁶ Besteak beste, teknologia berriak sare-gizartea deituriko eredu berriaren oinarrian dira, eta Manuel Castells bezalako egileak argi planteatzen ari dira hortik etorritako aldaketa sakonak. Gizarte egitura eta antolaketa guztiz aldatzen ari da eta bere ondorioak euskal gizartean ere ikusten ari dira. Eta bere hizkuntzan? Azterketa hori falta zaigu.

2.1.3 Erasure (Omisioa)

Ikonizitatea kontzeptutik abiatuta, hizkuntzaren eta identitatearen arteko lokarria ezartzen parte hartu duten aspektuak erreparatzeari ekin diot. Erlazio horren analisiari nagokiola, iruditzen zait erlazioaren konfigurazioan izandako pisuaren erakusgarri dela estatus ezberdineko hizkuntzen eta kulturen arteko ukipenaz sortutako dialektika —hots, hizkuntza eta kultura menperatzaileak eta dominanteak batetik, eta minoritarioak eta gutxiagotuak bestetik—. Dialektika horrek bi bariedade linguistikoaren arteko erlazioa eta dagozkien eredu soziokulturalak ez ezik, kultura eta hizkuntza minorizatuak bere espazio soziolinguistikoko antolamendua eta karakterizazioa ere determinatuko edo finkatuko lituzke.

Adierazten dut, halaz guztiz, paraleloan doazela logika *intergrupala* horren garapena eta kulturaren edo komunitatearen (*intragrupala*) barruko dibertsitatea sortzeko eta kudeatzeko dinamika. Alderdi horrek berak eragin zuzena edukiko luke, bestalde, beste(ar)en ikuspegia geure parte bezala hartzeko erreklamoak sortzen duen tentsioan, eta gizarte orok sortzen duen gatazkazko, garapenezko eta transformaziozko dinamikaren parte diren elementuak diferentzia eta alternatiba bezala bere egiteko apustuan.

Dibertsitate soziala errepresentatzen duten elementuen artean, bada, negoziaziozko eta norgehiagokazko prozesu tentsiozkoa gertatzen da: suerta daiteke ikusezin irautea, baina baita narrazioko edo errepresentazioko eredu partikular batek ezarritako dinamikak, funtzionamenduak edo kondizio estrukturalak ikusezin egitea ere. Euskal Herriko espazio soziolinguistikoan, homogeneotasunak funtsezkoa dirudi, berezitasun identitarioa defendatzeko garaian. Logika horrek diferentzia eta dibertsitate *intragrupala* ukatzera behartzen du.

Puntu horretatik aurrera, erronka izango litzateke ukazio hori estrukturazko paradigma eta balio bihurtzen duten mekanismoak eza-gutzea. Ildo horretan, euskal komunitate linguistikoari buruzko lan gehienetako izendatzaile komunari gagozkiola, deigarri gertatzen da

Bakhtinek iradokitzen du pertsona oro, benetan, boz anitzez eratua dagoela eta bozak estratifikatuak direla. Azken finean markatzen duenez hizkuntza erabiltzeko eta maneatzeko modua lotuta egongo da tokiko hitz egiteko moduagatik edota hitzunari dagokion talde sozial, profesional edota belaunaldiagatik.

Gure artean ere elementu anitzeko identitateak eredu bilakatu dira egun, alde batetik gizartea bera gero eta konplexuago egin delako; bestaldetik, gizabanakoa bera, bere interesak, nahiak eta bizipenak zabaldu egin direlako. Hizkuntz ukipena, kultur ukipena eta pertsonen arteko harremanak (errealak nahiz birtualak) egungo gizarte garatuen ezaugarriak dira.

ezaugarrietako bat zein den jabetzea: oro har, gizarte eta kultura autoktonoaren historia eta errealtatea barruko gatazkarik eta diferentziaziorik gabeak dira⁷.

Ikusezin bilakatzeko prozesu hori, era zuzenean lotzen dut *muted model* edo talde mutuen teoria deitutakoarekin, Shirley eta Edwin Ardenner antropologoek 1970. hamarkadan ezarritakoa. Oraingo honek teoria feminista bat du oinarri. Talde mutuen teoriaren arabera, hainbat kolektibo edo sektore sozial isilik geratzen dira, noiz eta errealtateak talde dominatzaile ez bezala perzibitzen eta adierazten dutela jabetzen direnean. Benetan, ordea, isiltasuna ez da isiltasuna, baizik eta eredu alternatiboen existentzia islatzen du, testuinguru jakin bat interpretatzeko eta hartan eragiteko moduei dagokienez.

2.2 Hiztuna eta identitate performatiboa

Euskal soziolinguistikan hiztuna definitzerakoan bere identitatean errepertatzea ezinbesteko baldintza izan da. Euskarak euskalduna zein den argi markatzen du (euskalduna=euskara duna) eta hortik aurrera euskara duen horri identitate berezia atxikitzen zaio. Eskema horren arabera, hizkuntzak guztiz baldintzatzen du pertsona, bere bizimodu eta ikuskeraren erdigunean kokatzen da, ezaugarri bereziak emanez.

Argi dago, interpretazio honen azpian identitatea ulertzeko modu zehatz bat dagoela, zeinetan hizkuntza edukitzeari ematen zaio garrantzia. Hau da, ziurtzat jotzen da hizkuntza duten guztiek euskalduntasun moduko bat dutela bere izaeraren barnean. Prozesu hori gainera, askotan, naturalizatu egin izan da eta modu horretan identitatea guztiz estatikoa agertzen da. Feminismotik eta bereziki antropologia feministatik naturalizazio prozesu hauek salatu egin dira eta, identitatea sortzeko garaian kulturak duen pisua azpimarratu dute. Ikuspegi horretatik gizabanakoaren testuingurua protagonista bihurtzen da, bere izaera eta identitatea eraikitze orduan, bertan txertatzeko eta bertako kidea sentitze ko sozializazio prozesua ezinbestekoa izanik. Identitatea, gainera, ibilbide luze baten fruitua litzateke, izan ere bizitza osoan zehar ari gara gure izaera eta pentsaera definitzen eta birdefinitzen.

Ikuspegi konstruktibista honetatik abiatuta, feminismoak planteamendu berriak landu ditu egun arrakasta lortu duen *performance* nozioa garatu arte. Kontzeptu honek identitatea osatzeko prozesuan “izateari” baino “egiteari” ematen dio garrantzia. Mary Bucholtzek Kira Hallekin batera idatzitako artikulu batean (Bucholtz eta Hall, 2004) ezin hobeto azaltzen du ideia hau:

“But identity inheres in actions, not in people. As the product of situated social action, identities may shift and recombine to meet new circumstances. This dynamic perspective contrasts with the traditional view of identities as unitary and enduring psychological states or social categories”.⁸

Jo dezagun hizkuntzaren arlora. Euskalduna euskara duna dela esan ohi da. Beraz, kasu honetan ere, hiztunaren identitatea izaeran baino praktikan jartzen da, eta euskara duen guztiok euskaldunak direla esan dezakegu. Baina hizkuntza eta identitateen arteko lotura praktikan ez ezik izaeran ere oinarritzen dela mantendu dugu. Horregatik oraindik ere, testuinguru askotan, euskaldun abizenak ez duen norbaitek euskaraz egiten duenean halako harridura sortzen du. Eta kasu batzutan harriduraz gain, nolabaiteko mesfidantza pizten da. Era berean, euskaldunberrien artean edota familia erdaldunetan jaiotako euskaldunen artea badago, batzuetan, euskaldun “peto-petoak” direnekin konparatzeko joera eta gutxiesteko joera.

Beraz, identitate esentzialista baten aurrean *performance*-an oinarritutako identitatea genuke, zeinetan identitatearen eraikitze prozesua nabarmentzen den. *Performance* nozioaren arabera gizakia “0” tik abiatzen da bere identitatearen osatze prozesuan eta aldiz bere inplikazioa eta partehartzea ezinbestekoa kontsideratzen da. Baldintzarik gabeko identitate horrek hainbatetan bertigoa sor dezake, baina, aldi berean, bide zabala ematen du estutasunik gabe, bakoitzak bere tokia bilatzeko. Hortik abiatuta identitate hori uneoro definitzen da, ez dago itxita, ez bukatuta. Judith Butlerrek generoaren nozioaz esaten duen moduan: “(el genero) no es una tarea prescriptiva que tengamos que empeñarnos en realizar, sino una tarea en la que estamos empeñados todo el tiempo”.⁹

2.3 Hizkuntz komunitatea *versus* Praktika komunitatea (*Community of Practice*)

Praktika komunitate kontzeptua edo *Community of practice* (*CofP*) Penelope Eckert eta Sally McConnell-Ginet ikertzaileek bereganatu zuten, iturburu izan zutelarik Jean Lavek eta Etienne Wengerrek ikaskuntzako erduei buruz landutako kritika (Eckert eta McConnell-Ginet, 1992).

Laveren eta Wengerren aburuz, ikastea ekintza naturala da, bizitzaren alderdi intrintsekoa, eta, aldi berean, prozesu sozial funtsezkoa. Ildo horretan, *CofP* nozioak, neurri handi batean, ikaskuntzako metodo tradizional bezala ulertzen denaren garapena inplikatzeko du: “*The process of becoming a member of a CofP –as when we join a new workplace, a book group, or a new family (e.g. through marriage)- involves meaning*”.¹⁰

Oinarritzko ideia horretan oinarrituta, Eckertek eta McConnellek *CofP* kontzeptuaz garatzen duten definizioa aldendu egiten da soziolinguistikaren eremuari irmo atxikituta dauden beste nozio-tipo batzuetatik; esate baterako, *speech community* (hizkuntz komunitatea) nozio-tipotik.

Eckertek eta McConnellek praktika komunitate (*CofP*) nozioari buruz garatutako definizioan, praktikaren ideia da alderdi zentrala, hau da, pertsonak benetan egiten dutena. Eta, hain zuzen, egite edo jardute erreal horrexek adierazten du pertsonen taldekide izateko desira eta orobat taldeaz sentitzen duten inplikazioa. Praktikak, eskuarki, estruktura

Teknologia berriak saregizartea deituriko eredu berriaren oinarrian dira, eta Manuel Castells bezalako egileak argi planteatzen ari dira hortik etorritako aldaketa sakonak. Gizarte egitura eta antolaketa guztiz aldatzen ari da eta bere ondorioak euskal gizartearen ere ikusten ari dira. Eta bere hizkuntzan?

Hizkuntza eta identitateen arteko lotura praktikan ez ezik izaeran ere oinarritzen dela mantendu dugu.

Identitate esentzialista baten aurrean performance-an oinarritutako identitatea genuke, zeinetan identitatearen eraikitze prozesua nabarmentzen den.

Hortik abiatuta identitate hori uneoro definitzen da, ez dago itxita, ez bukatuta.

linguistikoaren, diskurtsoaren edo hainbat eratako elkarreragin komunikatiboaren aspektu global edo espezifikoekin lotura duten jokamoldeen eta jarrerren aipamenak izaten dira. Janet Holmesek eta Miriam Meyerhoffek ñabartzen duten moduan, "(...) becoming a member of a CoPP interacts with the process of gaining control of the discourse appropriate to it".¹¹

Ondorioz, esan daiteke, praktika komunitatearen kasuan hizkuntza ez dela behingoz elementu aske eta, isolatua; aldiz gizarte egiturekin jartzen da harremanetan. Eta hau da, hain zuzen ere errealtatean aurkitzen dugun egoera. Hiztunak komunitate bateko kideak dira, baina zein paper jokatzan du hizkuntzak komunitate horretan? Hizkuntz komunitatearen nozio klasikoan erreparatzen badugu, hizkuntza ezinbesteko elementua da komunitate horien ezaugarriak eta dinamika definitzeko garaian. Horren adierazlea da Mari Jose Azurmendik hizkuntz komunitatearen inguruan egindako deskribapena.¹² Bere ustez mota honetako giza taldeak ondorengo osagaiak izan behar ditu:

- Ingurune eta lurraldetasun politiko-juridiko-sozial jakin batean kokatua egon behar du.
- Hiztun multzoa izan behar du.
- Funtzionatzeko norma komunitario bereziak izan behar ditu hiztun multzo horrek.
- Hiztun multzo horrek erabili egin behar du delako hizkuntza. Jaki-tea ez da nahikoa (adibidez, latinak ez du hizkuntza komunitatea osatuko, erabiltzen ez delako).
- Hiztun multzo horrek jarrera eta ekintza batzuk egin behar ditu (adibidez, Euskal Herrian dauden hiru islandiarrak ez lukete osatuko hizkuntza komunitatea elkarrekin jarduten ez badute).

Ikusten denez definizio hau hizkuntzari lotuta agertzen da zeharo, baina gizarte egitura eta gizarte egitura hau baldintzatzen dute sistema ezberdinak alde batera uzten ditu, eta zentzu horretan guztiz irrealak dela uste dut. Testuinguruan parte hartzen duten gainontzeko aldagai sozialak ez baditugu hizkuntza eremuan txertatzen gure azterketak, gutxienez, bi hutsune nabarmen izango dituzte. Alde batetik pertsonaren dimentsio soziala gutxiesten ari gara (hizkuntz dimentsioa nagusitzen da eta, zentzu horretan hizkuntzaren hipertrofiak ariko ginateke). Bestalde, aldaketa soziala alde batera uzten ari gara, hizkuntzaren iraunkortasuna gizartean orokorrean ematen diren tentsioen gainetik jartzen baita.

Orain arte hizkuntzak bakarrik izan du protagonismoa. Hizkuntza abiapuntua eta helburu izan da; tresna eta bitartekoa izan ordez. Hemen-dik proposamena bestelakoa da: zergatik ez onartu hizkuntzak hiztunak komunitate bateko kideak izateko garaian duen garrantzia? Zergatik ez aztertu hizkuntzarekin lotura duten elementuak eta aspektuak komunitate bat edo giza talde bat osatzeko garaian duten papera?

Nire ustez hau litzateke euskal soziolinguistikak duen erronka nagusienetarikoa bat, are gehiago mundu batean non Marcyelina Morganek dionez (Morgan, 2004) komunikazioak, globalizazioak edo transmigratioak elebakartasuna utopia bihurtzen dute. Horren adibide argiena, berriz, gaztetxoek mundutik etor daiteke, izan ere nahiz eta hizkuntza bera ez izan, egun, munduko punta ezberdinetan bizi diren gazteak hizkuntza komunitate bat osatu dezakete, hitz egiteko modua, hizkuntzari loturiko sormena, berrikuntza gramatikalak partekatzen baitituzte. Horren adibidea Morganen artikuluan topatzen dugu, bertan egileak Paris eta New Yorken bizi diren bi *hip-hoperoen* arteko loturak aztertzen ditu eta gazte hauek hizkuntza ezberdinak mintzatu arren, hizkuntza komunitate bereko kideak kontsideratu daitezkeela aldarrikatzen du.

"In the case of these hip hop artists, the speech community is not linguistically and physically located but is bound by politics, culture, social condition, and norms, values, and attitudes about language use".¹⁹

3. EUSKARA BIRPENTSATZEKO ELEMENTUAK: ALBOETATIK ERATORRITAKO AHOTSAK ETA IDENTITATEAK

Bertsolaritza praktika komunitate gisa aztertu dezakegu. Hori da, gutxienez, nire abiapuntua. Baina, hasteko, zer da bertsolaritza? Lehenengo pausua bertsolaritzaren definizioan datza: nola definitu dezakegu bertsolarien komunitatea? Ohiko definizioek biltzen dituzten elementu nagusiak hauek irateke:

- Bat-batekotasuna.
- Plazan (edo jendaurrean) burutua izatea.
- Kultura tradizionalari (edota nekazal girokoari) lotuta egotea.
- Maskulinitatea, gizonezkoek burututako jarduerak izatea.

Hauek dira bertsolaritza zer den identifikatzeko erabili ohi diren aldagaiak. Baina hauetan ez dago bertsolaritza osoa. Horretaz hitz egin izan digu Carmen Larrañaga filosofoak. Berak emakume bertsolarien profileen sakondu izan du eta horren bitartez bertsolaritza zer izan den eta zer den ulertzeko beste elementu batzuk eskaini dizkigu.

Larrañagaren azterketan argi ikusten da "plaza"z aparte, badirela beste esparru batzuk bertsoen eszenatokiak izan direnak: merkatuak, eliza, komentak, jostungileen tailerrak izan dira ere bertsolaritza guneak. Hori bai, espazio hauetan, plazan gertatu ez den bezala, emakumeak izan dira, nagusiki, protagonistak. Eta zergatik egin dira gizonezkoek plaza-jabe? Zergatik agertzen zaizkigu emakume bertsolariak esparru zehatz batzuetan konfinatuak? Galdera hauek erantzun aurretik esan behar da egoera honek baduela bere kokapen soziohistorikoa: ulertu

Praktika komunitate (CofP) nozioari buruz garatutako definizioan, praktikaren ideia da alderdi zentrala, hau da, pertsonen benetan egiten dutena. Eta, hain zuzen, egite edo jardute erreal horrexek adierazten du pertsonen taldekide izateko desira eta orobat taldeaz sentitzen duten inplikazioa.

**Orain arte hizkuntzak
bakarrik izan du
protagonismoa.
Hizkuntza abiapuntua
eta helburu izan da;
tresna eta bitartekoa izan
ordez. Hemendik
proposamena bestelakoa
da: zergatik ez onartu
hizkuntzak hiztunak
komunitate bateko kideak
izateko garaian duen
garrantzia? Zergatik ez
aztertu hizkuntzarekin
lotura duten elementuak
eta aspektuak komunitate
bat edo giza talde bat
osatzeko garaian duten
papera?**

behar dugu sexuen arteko bereizketa hau testuinguru sozial jakin batean ematen dela.

Berak dionez (Juan Mari Lekuonaren ikerlanetan erreparatuta), jada XV. mendean, bat-batean aritzen ziren emakumeak, eta *eresiac* ditugu horren adibide. Garai bereko *profazadorak*, ere, hitzari loturiko pertsonaiak dira, pertsonai arriskutsuak nonbait, izan ere, Bizkaiko Foruak bere presentzia publikoa debekatu baitzuen 1452an. Publikoki agertzen ziren emakumeek mesfidantza sortarazi dute beti. Eta denborarekin mesfidantza horrek ideologia zehatz batekin egingo zuen topo, izan ere, genero sistemak eta ideologiak esparru publiko eta pribatuen arteko bereizketa argi definitu zuen, lehenengoa gizonezkoei eta bigarrena emakumezkoei aplikatuz.

Urteekin beraz, gizon bertsolariak espazio publikoen protagonista bilakatu dira eta espazio horrekiko erabateko kontrola izan dute. Baina Larrañagak azaltzen duenez bertsolaritza gauzatzeko beste moduak eta beste guneak egon dira. Hor dugu bertso jarrien tradizioa. Bertso mota honek ez du jendaurrean aritza eskatzen eta emakume askorentzako bere bertso zaletasuna asetzeko aukera izan dira. Inaxia Etxabek honen testigantza ematen digu:

“Kanta paperak eta bertso liburuak ohizko ziren orduan bertsoak ikasteko, batez ere plaza eta sagardotegietara joaterik ez zutenentzat, andrazkoak kasu”.¹⁴

Eta bertsolaritzaren eremu itxi horretan sartzea lortu duten emakumeek, nola lortu dute? Nire ustez bertsolaritzak badu beste ezaugarri bat orain arte lagungarria gertatu dena emakumeen bidean. Fikzioa. Frogatzeke legoke, baina egia da bertsolari batek baino gehiagok plazak “trabestismorako” ematen duen aukera aipatu duela. Maialen Lujanbiok berak elkarrizketa batean zera aitortzen zuen: “bertsotan ari garela disfrazta daukagu jantzita”.¹⁵ Berak dioenez, bere ibilbidearen hasieran pose moduko bat bereganatu izan zuen eta hori mantendu du urteetan.

Fikzioa beraz, momentu jakin batzuetan, aukera interesgarria suertatu da bertsolari izan nahi zuten emakumeentzako, baita –pentsatzen dut bertsolari tipikoaren profila betetzen ez zutenen mutilentzako ere. *Performance* identitateak zentzua hartzen du beraz testuinguru honetan, zeinetan, identitatea, izaera, alde zuzenetik ezarritako arau batzuetara moldatu eta egokitu egiten dira, horiek errepikatze asmoz. Fikzioak aukera ematen die periferian dauden identitateei bertaratzeko eta partaide sentitzeko. Hortik aurrera transgresioa gelditzen da. Behin komunitate kide bezala onartua egonda, bidea irekitzen da aldaketak bultzatzen saiatzeko. Transgresio fase honetan topatzen dugu egun hainbat emakume bertsolari. Iristen direnak, genero sistemari aurre egin dioten horiek. Izan ere, bertsolaritzan erakutsi beharreko trebeziak mutikoek euren heziketa prozesuan bereganatu ohi dituztenak dira. Errealitate hau ezin hobeto azaltzen du Maialen Lujanbiok:

"Neskak ez dira hezi zeresana dutela sinisteko. (...) Hezita gaude ez nabarmen-tzeko, ez kontra egiteko helduagoei, gizonei... Orduan hitza hartzen duzunean zure barruan borroka sortzen da."¹⁶

Heziketa kontua ere, bada, beraz. Eta sozializazio prozesua ezinbesteko aldagai bilakatzen da rolen banaketa hori ulertzeko garaian. Bertan protagonistak ugariak dira, besteak beste bertso-eskolak. Heziketa eremuak dira hauek ere, nahiz eta gehienetan zentzu neutroa bat eman nahi izan zaien. Praktikan arazoa zera da: bertso-eskoletara iristen diren neska-mutilek ez dutela jada abiapuntu berdina. Horrela azaltzen du egoera Estitxu Izagirre:

"Orain iritzi publikoa ez da arazo. Bertsotan egin nahi duena kantatzeko libre da, neska edo mutila izan. Orain, norberaren gaitasuna da kontua. Gaitasun batzuk landuagoak ditu genero bakoitzak, eta gaitasun batzuk egungo bertsolaritzarako abantaila dira. Mutilak plazarako prestatuago datoz bertso eskolara, eta neskekin jendaurrekotasuna gehiago landu behar izaten da. "Kasualitatez", neskek auto-estima txute baten premiaz, hamaika konplexurekin eta edozertarako lotsaz aterritzen dute bertso eskolan. Eta horrela datorrenarentzat jendaurre-ateratzea sufrimendua da".¹⁷

Orain arte bertsolaritza komunitate gisa definitzeko erabiltzen diren elementu eta aldagaiak aipatu ditugu, baina, jakina denez, azken urte hauetan aldaketa franko jaso ditu bertsolaritzaren eremuak. Aldaketa prozesu honetan alderdi eta eragile ezberdinak aipatzen dira: bertso txapelketen antolaketa, komunikabideen bitartez bertsoak lortzen duten protagonismoa, bertsolarien elkartearen sorrera, bertsoen korpusaren osaketa, bertso-saioen ugalketa, bertso-saioen dinamikaren aldaketa edota gaien aldaketa. Nire ustez, hauek bertsolaritzaren ingurunean eta egituran emandako aldaketak dira, ez hainbeste bertsolaritzaren izaeran edo mui-
nean. Dena dela, horrek ez du esan nahi eragin sakona eduki ez dutenik. Are gehiago, nire hipotesia da, aldaketa hauek mudantza garrantzitsu bat ekarri dutela bertsolaritzaren mundura: bertsolarien profesionalizazioa.

Lehenago bertsolaria unibertso edota kultura tradizionalaren isla eta bozeramailea zen; izaera, bizimodu eta komunitate baten ordezkari. Egun bertsolaria, sortzaile bat da, artista kontsidera dezakeguna, hitzaren eskultorea, eta horri lotuta berezko izaera eta originaltasuna protagonismoa bereganatu dute. Bertsolarien artean zentzu kolektiboa mantentzen da, baina gero eta gutxiago izaera edo ikuskera bati lotuta; gero eta gehiago ordea praktika eta lanbide bati lotuta.

Testuinguru berrietara iristen ari da bertsolaritza. Irudi berriak proiektatzen ari dira bertsolarizatit. Halere, imajinatu dezakegun moduan aldaketa hauek ez dira eman tentsiorik gabe. Aipatu dugu maskulinitatearen isla den bertsolaritzaren esparruan emakumeen presentzia suposatzen ari dena. Baina badira beste faktore batzuk bertsolaritzaren izaera eta itxura eraldatzen ari direnak: bertsolari gazteen protagonismoa, bertsolarien profil unibertsitarioa, bertsolarien jatorri hiritarra edo urbanoa.

Ezaugarri hauek dituzten bertsolariak bertsolari klasiko edo tradizionalekin elkarbizitzen baldin badira ere, argi da, bere protagonismoa

Fikzioa beraz, momentu jakin batzuetan, aukera interesgarria suertatu da bertsolari izan nahi zuten emakumeentzako, baita –pentsatzen dut– bertsolari tipikoaren profila betetzen ez zutenen mutilentzako ere.

Bertsolaritza ez da burbuila bat, aldiz, euskal gizartean eta euskal kulturaren elementu oso garrantzitsua da, ikur nabarmena gainera. Horregatik, hizkuntza, hiztuna eta hizkuntz komunitatearen etorkizunaz pentsatzeko garaian, bertsolaritza eramaten ari den ibilbidea aztertzea lagungarria izan daitekeela uste dut.

gero eta nabarmenagoa dela. Itxuraz lasaitasunez ematen ari diren aldaketak dira eta ondorioz trantsizio baretsuaz hitz egin dezakegu. Dena dela, telebistako pantaila edota oholtza baten aurrean jarrita argi sumatu daiteke bi mundu, bi unibertso ezberdinen arteko talka. Baina bertsolaritza aurrera doa. Nola onartu aldaketa? Nola onartu gero eta dibertsioagoa eta nahasiagoa den bertsolaritza? Nola elkarbizitzen dira hain ezberdinak diren profil hauek? Eta erantzuna planteatzeko garaian burura etortzen zait hizkuntz komunitatea eta praktika komunitatearen arteko bereizketa. Eta bi ereduaren arteko konparaketa egitean argi ikusten dut bertsolaritzak bigarren ereduaren ezaugarriak bereganatzen ari direla trantsizio momentu honetan. Hau da, praktika komunitate baten gisa antolatzen eta egituratzen ari dela uste dut. Bertsolaritza, bertsoa, bertso-lana, bertso-eskolak protagonismoa bereganatzen ari dira, hau da bertsolarien zeregina. Bertsolaria eta bertsolaritza aritze horretatik sortuko lirake eta ondorioz, hori litzateke, bereziki, elkarren arteko lotura sendotzeko bidea. Eta aritze horrek, hain zuzen ere, bideratuko luke aurretik aipatutako aniztasuna eta dibertsitatea. Praktikan oinarritutako bertsolariak gero eta gehiago dira eta, horregatik, bere profila izaeraz, jatorriaz, pentsaeraz ... oso heterogeneoa izan daiteke.

Esandakoaren harira, bertsolaria aipatzean *heteroglossian* eta *performancean* oinarritutako identitateaz ari garela esan dezakegu. Edo gutxienez iradoki.

Eta hau horrela bada, badago aukera pentsatzeko etorkizunari begira, emakume bertsolarien presentziaren inguruan sortutako tentsioak ezabatzen joango direla. Emakumeak bertsoen praktikara iristen diren momentutik eta bere presentzia, bere kopurua handitzen den heinean aurrera pausu garrantzitsuak emango dira. Bertsolaritza praktika komunitate bezala finkatzen baldin bada emakumeek aukera gehiago izango dute bertan txertatu ahal izateko bertsolari izaeran baino hitzean erreparatuko baita. Eta hau da, emakume bertsolariak aldarrikatzen ari direna: bertsogintza hitzaren eremua izatea eta bertan jarrera, jokaera edota aurreiritzi batzuk baloratzea baino interpretazioa saritzea. Hitza berak irekiko die bidea emakumeei eta hitzen erreparatuta, posible litzateke erreferente berriak, gai berriak, estilo, estetika eta proposamen berriak bereganatzea. Izan ere gaur egun, bertsolari gehienek aitortzen dutenez, emakumeak sartu dira bertsolaritzan, baina emakumeak errepresentatzen dutena ez (kezakak, bizipenak, e.a.). Esperientzia eta balio horiek taularitzen ez diren bitartean bertsolaritza unibertso mugatua izango dela esan dezakegu. Modu berean gizon bertsolarien kasuan maskulinitatea bizitzeko modu ezberdinak daudela pentsa dezakegu, baina horretaz ez da eztabaidatu.

Bukatzeko bertsolaritzaren inguruan egindako hausnarketatik hainbat ondorio orokor atera nahiko nituzke. Bertsolaritza ez da burbuila bat, aldiz, euskal gizartean eta euskal kulturaren elementu oso garrantzitsua

da, ikur nabarmena gainera. Horregatik, hizkuntza, hiztuna eta hizkuntz komunitatearen etorkizunaz pentsatzeko garaian, bertsolaritza eramaten ari den ibilbidea aztertzea lagungarria izan daitekeela uste dut.

Paralelismo hau egiterakoan bertsolaritzaren inguruan egindako azterketak, gutxienez, hiru galdera uzten dizkigula pentsatzen dut.

Lehenengoak zerikusi zuzena du egun hizkuntz komunitatearen definizio arazoekin. Orain arte definizio nagusi batekin jokatu dugu hizkuntzaren komunitatea zehazteko garaian, baina bertsolaritzaren garapenak erakusten digunez, pentsa dezakegu definizio nagusi horrek hegonia bat ezkututzen duela eta ondorioz bere alboetatik sortu daitezkeela beste era bateko proposamenak. Bertsolaritzan ez zegoen emakumerik, emakumeak deskubritu arte. Horretarako bertsolaritzaren definizioa zabaldu behar izan dugu (bertsoak egiteko beste mota batzuetara, beste esparru batzuetara). Horren ildotik agian hizkuntz komunitatearen mugei buruz ere eztabaidatu behar da eta kanpoan eta barruan zeintzuk gelditzen diren birdefinitu. Eta ez hori bakarrik. Emakume bertsolarien kasuan gertatu den moduan, margen horietatik sortutako figura berri horien ezaugarriak, bizipenak edo estiloak ohiko definizioetan nola txertatu aurreikusi beharko genuke.

Bigarren galdera edo itaunak harreman estua du aldaketaren nozioarekin. Bertsolaritzarena adibide interesgarria izan daiteke euskal gizartean hizkuntzaren inguruan izandako aldaketak aztertzeko. Bertsolariaren profila zeharo aldatu da azken hamarkadetan, bertsolaritza bera, bere dinamika, estetika eta gauzatzeko erak oso bestelakoak dira XX. mendearen hasierako bertsolaritzarekin konparatuta. Artikulu honetan zehar ikusi dugunez, aldaketa horiek berrikuntza nabarmenak ekarri dituzte, bertsolariengan eta ikusleengan eragina izan dutenak. Tentsioak eta ezustekoak suertatu dira, baina egungo bertsolaritzak ondo digeritu omen ditu. Fikzio eta kreaizio espazio bat bezala bermatu da bertsolaritza garaiakidea eta horrek ere lagundu du bertsolaritza tradizioaletik jauzia ematen. Bertsolariaren figura eta identitatearengan jarri da arreta. Hau profesionalizatu da eta horrek taldearekiko autonomia puntu bat eman dio.

Komunitateak agintzen duen praktika (bertsolaritza, alegia) ezberdintasun guztien gaineratik jarri da eta bertsolaria da irabazle atera dena, adina, sexua eta aipaturiko bestelako aldagaiak alde batera utzita.

Onartze prozesu hau ulertzeari begira aldaketen jatorria, aldaketaren eragileak eta aldaketak berak sortutako erantzunak sakonki ikertu beharreko elementuak liriateke, berriz ere, hizkuntzaren unibertso orokorrean sortu daitezkeen paralelismoak aztertu ahal izateko.

Bukatzeko, baina oraintxe esan dugunarekin lotuta, azken galderak harreman zuzena du dibertsitatearen ideiarekin. Antropologiak ez du mundua ulertzen dibertsitate gabe, izan ere hori gizarte guztien oinarria da. Baina ezinbesteko elementua izateaz gain, dibertsitatea aberastazuntzat jotzen du diziplina honek. Dibertsitateak komunitatea aberastu

*Agian hizkuntz
komunitatearen mugei
buruz ere eztabaidatu
behar da eta kanpoan eta
barruan zeintzuk
gelditzen diren
birdefinitu. Eta ez hori
bakarrik. Emakume
bertsolarien kasuan
gertatu den moduan,
margen horietatik
sortutako figura berri
horien ezaugarriak,
bizipenak edo estiloak
ohiko definizioetan nola
txertatu aurreikusi
beharko genuke.*

***Dibertsitateak
komunitatea aberastu
egiten du; ekarpen berriak
eragiten ditu, eta,
horretaz gain, laguntzen
du berezko ezaugarriak
berrikusten eta
eguneratzen.***

***Dibertsitatea onartzean
eta barneratzean
munduaren irudi
osatuagoa onartzen ari
gara, eta era berean,
dibertsitate hori
bultzatzen duen “beste
horrek” gureaz
kontzienteagoa izaten
laguntzen du, horrek
suposatzen duen kritika,
nahiz alabantzarekin.***

egiten du; ekarpen berriak eragiten ditu, eta, horretaz gain, laguntzen du berezko ezaugarriak berrikusten eta eguneratzen. Emakume bertsolarian dugu guzti honen froga. Bere presentziarekin ikuspegi, diskurtso eta bizi-pen ezberdinak ziurtatu egiten dira eta horiek munduaren irudi osatuagoa eta “errealagoa” eskaintzen digute. Dibertsitatea onartzean eta barneratzean munduaren irudi osatuagoa onartzen ari gara, eta era berean, dibertsitate hori bultzatzen duen “beste horrek” gureaz kontzienteagoa izaten laguntzen du, horrek suposatzen duen kritika, nahiz alabantzarekin.

Kasu honetan, dudarik gabe, arazoa bestearen onarpenean datza; eta horrekin batera bere txertatze prozesuan. Nola jarri harremanetan, nola sustatu elkarrizketa ezberdinak direnen artean? Estrategia bat baino gehiago egongo dira, baina bestearekiko errespetua eta bakoitza bere buruarekiko egin beharreko azterketa beharrezkoak izango dira. Gizon bertsolariek ezin dute jarraitu beste aldera begiratzen, bere jokoera berraztertu gabe. Emakume bertsolariak berriz, ezin dute geldirik egon, euren lana beste batzuek egingo dutelakoan: beraien mugak apurtzeko prest agertu behar dute.

Baina ezin dugu pentsatu bertsolaritzak dituen erronkak eremu horretakoak bakarrik direla. Izan ere, bertsolaritzaren garapenean topatu ditugun prozesuak beste hainbatetan gertatzen ohi dira. Berriz esan behar dugu: bertsolaritza ez da burbuila bat, gizarte osoaren errealitatearen isla baizik. Eta sexu ezberdinen arteko tentsioak ez dira, noski, gizartean topatzen ditugun bakarrak. Are gehiago, egun hizkuntza dela eta, euskara dela eta, tentsioak indarrean diraute. Behin eta berriz adostasunaren beharraz hitz egiten da, baina praktikan ikusten da aldaketarako ematen diren pausuak ez direla nahikoak. Bide horretatik ateratzeko konponbide ezberdinak egon daitezke, baina sarritan pentsatu izan dut horietako bat kontzeptuetan datzala.

Dakigunez, hizkuntzaren inguruan iturburu ezberdinetako diskurtso ideologikoak sortu eta zabaltzen dira eta diskurtso horiek errealitatea agintzeko ahalmena dute. Horregatik da hain garrantzitsua diskurtso eta irudi berriak irudikatzea eta eraikitzea: errealitate berriak imajinatu ahal izateko.

Nire ustez, egun, euskararen egoerak kontzeptualizazio berri baten premia du. XXI. mendean hizkuntza, hiztuna eta komunitatearen definizioak ezin dira berdin mantendu. Identitatearen osaketa, komunitateen osaketa eta hizkuntzen balioa erabat aldatu dira guztiz globalizatu den mundu honetan. Ezin dugu jarraitu hainbeste aldatu den errealitatea betiko betaurrekoekin begiratzen. Aurrera pausuak eman behar dira, bertsolaritzak egin duen moduan. Berak komunitatea irudikatze modu berri baten alde egin du eta bide horretatik esploratzen eta esperimentatzen ari dira bertsolariak zein bertsogintzan aritzen direnak. Bertsolaritzari buruzko aurreiritziak eta topikoak alde batera utzita, aske izan nahi dute bertsolariek euren berezko bidea aurkitzeko. Eta horretan diraute, adinak, sexuak, jatorriak, lanbideak, edo bizitokiak ekar ditzaketan ozto-

poak gainditu nahian; traba guztiak ezabatu nahian. Ez dakit gizarte oso-rako eredugarriak diren, baina gutxienez euren ibilbidea ikertzeko modukoa dela uste dut. Horretan saiatu naiz eta horretan jardungo dut aurrera begira ere.■

OHARRAK

1. DURANTI, Alessandro (2003): "Language as Culture in U.S. Anthropology; Three Paradigms" in *Current Anthropology* Vol. 44. Number 3, June 2003 (eskuragarri helbide honetan: <http://www.sscnet.ucla.edu/anthro/faculty/duranti/reprints/lenguacultura.pdf>)
2. MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2004): "Euskara birpentsatu beharra" in *Argia*. 2004-12-19. Izenburuan antzematen denez, artikulua hori testu honen abiapuntutzat hartu dut.
3. Gai horren inguruan ikusi, besteak beste: HELLER, Monica (1999): *Linguistic Minorities and Modernity*. London: Longman.
4. Orain dela gutxi komunikabideek iragartzen zuten egun 100 hizkuntza ezberdinak elkarrekin bizi-tzen direla EAEn eta Nafarroan. 100 hizkuntz horiek 66 nazionalitate ezberdinei dagozkie.
5. DURANTI, Alessandro (2000): *Antropología Lingüística*. Madrid: Cambridge University Press; 113 orria.
6. Globalizazioa dela eta, denboran nahiz espazioak gertatutako aldaketei buruz besteak beste, ikusi: CASTELLS, Manuel (2002) "La sociedad red", in M. Castells, A. Giddens, A. Touraine, *Teorías para una nueva sociedad*. Madrid: Fundación Marcelino Botín.
7. Txemi Apaolazak lurraldeaz eta hizkuntzaz egindako gogoetan dioen moduan, euskararen lurraldetasuna eta hizkuntza horrekin identifikatzen den komunitatea errepresentatzeko oro har baliatzen diren irudiek, "nunca dan cuenta de la existencia de rupturas dentro del 'nosotros' ". Ikusi: APAOLAZA, Txemi (1997): "Lengua y Territorio" in Rodríguez Campos, Xaquín (coord.) (1997): *As Linguas e as identidades. Ensaio de etnografía e de interpretación antropológica*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela; 255 orria. Egile horrek ere ideia bera azpimarratzen du bere artikuluetako batean. "Geu" bloke homogeneo bezala aurkezteko joeraz mintzatuz, honela dio: (...) *ye daqué revelador la poca atención que se punxo n 'Euskadi a la influencia que la llucha de clases, o 'l conflicto ente distintos grupos del 'nós étnico y nacionalista tuvo dentro del 'nós', y la configuración de la llingua vasca configurada nel euskara batúa*. Ikusi: APAOLAZA, Txemi (1998): "Una metáfora" in *Cultures. Revista asturiana de cultura* n° 8; 45 orria.
8. BUCHOLTZ, Mary; HALL, Kira (2004): "Language and Identity" in Duranti, Alessandro (2004): *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackwell; 376 orria.
9. BUTLER, Judith (1990): "Variaciones sobre sexo y género. Beauvoir, Wittig y Foucault" in Benhabid, Seyla; Cornell, Drucilla (1990): *Teoría Feminista y Teoría Crítica*. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim; 198 orria.
10. ECKERT, Penelope; MCCONNELL-GINET, Sally (1992): "Think practically and look locally: Language and gender as community-based practice" in *Annual Review of Anthropology* 21; 174 orria.
11. HOLMES, Janet; MEYERHOFF, Miriam (1999): "The Community of Practice: Theories and methodologies in language and gender research" in *Language in Society* 28; 175 orria.
12. Ikusi: http://eu.wikipedia.org/wiki/Hizkuntza_komunitatea
13. MORGAN, Marcyliena (2004): "Speech Community" in Duranti, Alessandro (2004): *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackwell; 6 orria.
14. BERTSOLARI Aldizkaria 7. Zenbakia. 1995. Martxo; 29 orria.
15. DOXANDABARATZ, Beñat (2003): "Maialen Lujanbio: Bertsolariak eredu gara belaunaldien arteko elkar ulertzean" in *Euskonews & Media* 194 Zenbakia.
16. BERTSOLARI Aldizkaria 68. Zenbakia. 2007. Negua; 113 orria.
17. "Emakume bertsolariak 23 bakarrik dira". SAREKO ARGIA (gari alea) http://www.argia.com/blokak/garialea/blog_listado.php?blog_id=2&kat_id=14&post_id=33

Egun hizkuntza dela eta, euskara dela eta, tentsioak indarrean diraute. Behin eta berriz adostasunaren beharraz hitz egiten da, baina praktikan ikusten da aldaketarako ematen diren pausuak ez direla nahikoak. Bide horretatik ateratzeko konponbide ezberdinak egon daitezke, baina sarritan pentsatu izan dut horietako bat kontzeptuetan datzala.

XXI. mendean hizkuntza, hiztuna eta komunitatearen definizioak ezin dira berdin mantendu. Identitatearen osaketa, komunitateen osaketa eta hizkuntzen balioa erabat aldatu dira guztiz globalizatu den mundu honetan.